

DIGITALIZAZIO BURUJABEA HEZKUNTZAN



**IRAILAK 23
LARUNBATA
DONOSTIA
IRATZAR ARETOAN**

DIGITALIZAZIO BURUJABEA HEZKUNTZAN

Euskal Eskola Publiko Komunitarioaren bidean, hezkuntzan ere Digitalizazio Burujabea aldarrikatzen dugu LABetik. Norabide horretan, hauek dira gidalerrotzat ditugun zenbait printzipio:

Burujabetza: baliabideen kudeaketarako eta hezkuntza komunitatearen eskubide digitalak bermatzeko; hauek kapitalaren, eta bereziki, botere korporatiboen esku ez jartzeko.

Publikotasunetik eskubide digitalen bermea. Tokian tokiko administrazioek informazioaren kontrola izatea, herritarron eskubide digitalak bermatzeko. Egun administrazioek enpresa korporatibo handien esku utzi dituzte hezkuntza komunitatearen parte garenon eskubide digitalak.

Euskalduna eta Euskal Curriculumean oinarrituriko digitalizazioa. Euskararen presentzia enpresa pribatuen esku uzten ari gara, hizkuntzaren eguneratzeko erabakia beraien esku geratzen da, hezkuntza ereduaren uniformizazioa eta inkulturizazioan eraginez. Euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea aukera bat da software librean. Gainontzekoetan ordea, multinazionalen esku geratzen dira erabakiak. Tokikotasunean euskara garaile.

Balore feministetan eta inklusiboetan oinarritua. Eskubide digitalak eta ahalduntze digitala denon eskura egon dadin, digitalki alfabetaturik egoteko aukera ikasle guztiek izatea. Horretarako baliabideak ikasle guztientzat eskuragarri egon behar dira eta heziketa premia bereziko ikasleei egokiturikoak. Arrakalak gutxitzen joan daitezten, aukera berdintasuna bermatu ahal izateko eta herri kohesioa sustatzeko.

Ekosozialista. Zahartze programatua vs. berrerabilpena. Bigarren balio hau garatu nahi badugu, Chromebook bezalako gailuek honen kontra egiten dute. Klima aldaketaren desafio handiari aurre egin behar diogu, izan ere, CO2 isurketa handia sortzen da bidaltzen dugun mezu bakoitzeko. Digitalizazioa jasangarria izan behar da, materia finitoekiko ere, tresnen iraunpenari eta berrerabilpenari dagokionez; trantsizio ekosozialerako modu bakarra da

Pedagogia kritikoa edota ikuspegi kritikoa lantzen dituen. Egun, hezkuntza digital murrizta daukagu. Egungo ereduaren bidez beti tresna berdinak erabiltzera mugatzen ari gara. Ofimatika erakutsi beharrean, multinazionalen produktuak irakasten dira etorkizuneko langileek multinazional handien produktuetarako dependentzia izan dezaten. Tresnak integrazio pedagogikorako erabili behar dira.

Formazioa hezkuntzako langileria guztiari. Batetik, arrakala digitalari aurre egiteko; eta bestetik, baliabide hauen erabilera arduratsuan hezi eta ikas-irakas prozesuan tresna gisa erabiltzeko (eta ez helburu gisa).

Teknologia disruptiboek hezkuntza sisteman duten inpaktua neurtzen duena. Erabilerak dituen ondorioen diagnostika eginez, estrategia eta plangintza baten baitan kokatu behar da digitalizazioa; ondoren, eskuhartze pedagogikoan eta formazioan egun egiten den erabileran neurri zuzentzaileak aplikatzeko.

Euskal Herrian, 2023ko irailaren 23an

